
LITERATURA

KONTU-KONTARI

GAU-LOREAK

Bada izan *Mirabilis Jalapa* izeneko lore polit besteko berezia, euskaraz gau-lore diotsoguna. Berezitasun horretatik dator, hain zuzen, latinezko izen orokorra, *Mirabilis*, hau da, zoragarria edo miragarria.

Bestalde, *Jalapa* Mexikoko Veracruz estatuko hiriburuaren izenetik dator: Xalapa-Enriquez. Zehatzago, *hareatzan da goen ura* esan nahi du Xalapa hitzak, totonakarren hizkuntzan. Paraje horretan nonahi zabaltzen omen ziren hareatzak, erabat maldatsua zen zorutik zehar. Eta hareazko maldetatik behera etengabe erortzen zen ura hainbeste zenez gero, izen hori jarri zioten totonakarek.

Alexander Von Humboldt humanista eta zientzialari alemaniarrak XIX. mendearen hastapenetan bisitatu zuen Xalapa. Itxura denez, liluratuta geratu zen hango paisaiaren edertasunaz. Horrenbeste gustatu zitzaion Xalapa, ezen *Loreen hiriburua* deitu baitzion. Harrezkero, hala da ezagun munduan.

Askotariko eta kolore biziko loreak daude bertan. Baina denen artetik gau-lorea nabarmendu behar, aldi berean xumea eta dotorea ez ezik, esan bezala, berezia ere badelako. Berezia da, egunez, zarratuta egoten delako, eta, gauez, irekita, naturaren ziklo naturalari desafio egin nahi izango balio bezala. Horregatik deitzen zaio euskaraz gau-lore. Alabaina, baliteke aurkakotasun horrek esanahi propioa izatea, bizitza beste modu batean uler daitekeela erakuts dezakeena...

Ameriketatik XVII. mendearen hasieran ekarri zuten Europara, lorategietan toki propioa izan zezan. Berezietan berezi, kolorez gorri, zuri, hori, arrosa edo jaspeztatua, usain ona dariola, laster bihurtu zen lorategietan nagusia.

Hitzen lorategia izan ohi den literaturan ere azkar egin zuen lekua gau-loreak. Egin-eginean ere, Alonso Jerónimo de Salas Barbadillo idazle madrildarrak berea egin zuen gau-lorea berezi egiten duen izaera desafiatazaila, 1623. urtean *Don Diego de Noche* nobela idatzi zuenean. Are gehiago, denborarekin, eta, seguru asko, nobela horren ondorioz, Espainian, gau-loreari *Don Diego de Noche* deitu zioten. Areal ere, nobelari erreparatuta, idazleak bederatzi abenturaren berri ematen digu, denak ere beste horrenbeste gauetan jatzotzen direnak. Halaber, bigarren eta hirugarren gauetako abenturen artean gutun barregarri eta satiriko batzuk daude tartekatuta, ezbairik gabe Quevedoren tankera edo estilokoak. Abentura orotan, protagonista nagusia Don Diego du. Bera da bederatzi gau horietako abenturetan, bai eta gutunetan ere, egoera desberdinen aurrean, ohiko jarrerak izango lirakekeen ordez bestelako ikuspuntu satiriko edo barregarria agertzen duena.

Hirurehun urte geroago, 1924an, Rafael Alberti idazle kadiztarrak Poesiako Sari Nazionala irabaziko zuen *Marinero en tierra* poesia-liburua argitaratu zuen. Bada, poesia-bilduma horretan *Dondiego sin don* izeneko poema jaso zuen, arestian

aipatu idazle madrildarraren lorratzei jarraituz eta gau-lorearen berezitasuna nabarmenduz. Hala dio poema horrek:

Dondiego no tiene don,
Don.

Don dondiego
de nieve y de fuego.
Dón, dín, dón,
que no tienes don.

Abrete de noche,
ciérrate de día,
cuida no te corte
quien te cortaría,
pues no tienes don.

Don dondiego,
que al sol estás ciego.
Dón, dín, dón,
que no tienes don.

Gure literaturan, ordea, ez da ageri gau-lorerik. Hala eta guztiz ere, aurtengo udan, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren mugan aurkitu ditugu gau-lore apur batzuk, bide-hegalean Bizkaian, hondatutako jauregitxo baten sarreran Gipuzkoan. Berriatuatik Ondarroarako errepidean lehenak, Mutrikuko *Villa Dioni* jauregitxoan bigarrenak. Denak ere esperoan, zerbait kontatzeko desiratzen. Asko omen dute esateko, baina, jakinarazi digute, aldez aurretik, hizketan hasi baino lehenago, trukean, eskertuko luketela eurei buruzko poemaren bat euskaraz. Orobat, esan digute ahaztuta egon direla, baztertuta, eta gure begiradak itxaropena eragin dietela. Azkenean, beren-beregi ere eskatu digute euskarazko poema bat eskaintzea. Halatan, eta, batik bat, konta diezazkigutenengatik irrikaz, zelan ezetz esan?

GAU-LOREA, EGUZKIRIK GABEKO LOREA

Gau-loreak ez daki zer den eguzkia,
eguzkia.

Gaua maite du gau-loreak,
ilargia dagoen tokian zertarako eguzkia.
Gau-lore, gau eta egun, gau-lore,
ez dakizu zer den eguzkia.

Zabal zaitez gauez,
egunez zarratu,
nork moztuko zintudan egon arren,
arren, ez zaitzala moztu,
ez baitakizu zer den eguzkia.

Gaua maite du gau-loreak,
itsu baita eguzkitan.
Gau-lore, gau eta egun, gau-lore,
ez dakizu zer den eguzkia.

Eskatutakoa bete ondoren, eta gure poema gustatuko ziztzaielakoan, zain geratu gara, gau-loreek hurrengoan kontatuko dizkigutenean zain.

(JARRAITUKO DU)

Francisco Javier Arrieta Idiakez